

Ingurumenarekiko Konpromisoa


Usurbil GLHBik, ingurumen kudeaketa on batek gure gizartearen garapen iraunkorrean daukan garrantziaz jabetuta, ingurumen politika bat ezartzea erabaki du, gure jarduerak ingurunearen gainean daukan eragina ahalik eta gehien murrizteko.

Gizartearekiko konpromiso hori erakusteko, ondorengo konpromisoak eta jarduera gidalerroak ezarri ditu:

- Indarrean dauden ingurumen legedi eta araudi aplikagarriak betetzea.
- Energia eraginkortasuna sustatzea.
- Plangintza eta erabaki-hartze prozesuetan ingurumen irizpideak erabiltzea.
- Hondakinen gaikako bilketa egitea.
- Eskola-elkarte osoak ingurumen politikarekin lotutako konpromisoak bere egitea bultzatzea.
- Ikastetxean nabarmentzen diren ingurugiroari lotutako hobekuntzak bultzatzea.
- Ikasle eta partikularren bitartekari antolatuz, ingurugiroari buruz erreferentziazko zentroa izatea.

Prozesu hau, **EKOSCAN** araberako Ingurumen Kudeaketa Sistema baten eremuan garatzen da.

Ingurumen Portaera Adierazleak



Informazio gehiago nahi izanez gero, sistemaren kudeatzailea hau da **Juan Andrés Rebollo**. Tf: 943364600
irjarebollo@lhusurbil.eus

2017 URTEA

Hobekuntza Plana



Paper kontsumoa murriztea

- Apunteak banatzeko plataforma digitalak erabiltzea (Drive) irakaskuntza arautuan
- Apunteen berrerabilera sustatzea



Erosketa berdea

- Ingurumen irizpideak dituzten materialak erostea



Energia kontsumoa murriztea

- Jardunbide egokiak identifikatu eta kartelak jartzea
- Orduen araberako energia-kontsumoaren azterketa egitea



Hondakinen sorrera murriztea

- Trapuen garbiketa eta berrerabilera aztertzea

Hobekuntza Emaitzak



PAPER KONTSUMOA

2017/2018 ikasturtean Administrazioa, Elektrizitatea, Mekanika, LPO/Ingelesa eta Mantenu sailetan **apunteen elkartruckerako** egin den **Drive**-aren erabilerrari esker **%14an jait**si da zentroko erabiltzaileko egiten den **paper kontsumoa**.



EROSKETA BERDEA

Usurbilgo Lanbide Eskolan orain arte paper birziklatua eta ingurumen irizpideak dituzten zenbait boligrafo erabili izan dira. 2017/2018 ikasturtean, horietaz gain **%100 birziklatuak** diren **post-it** eta **ingurumen irizpideak dituen kola** erosi da baita ere.



ENERGIA

Zentroko zenbait gunetan argiak itzaltzeko kartelak jarri eta egiten den kontsumoaren jarraipena egiten hasi bagara ere, **energia kontsumoak gora** egin du.



HONDAKINAK

Taller-etan eta bereziki mekanikan trape asko erabiltzen dira, hondakin ugari sortuz. Berauek garbitu eta berrerabiltzeko aukera aztertu bada ere, oraingoz bideragarria ez dela ikusi da.